



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2015eko urtarrilaren 13a

3. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea hein batean aldatzekoa. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, LOMCeren xedapen gehigarrian ezarritakoa betetzeari buruzkoa, ETAren biktimek beren historia konta dezaten Nafarroako Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxeetan. Amaya Zarranz Errea andreak egin du (5. or.).
- Galdera, funtzionarioei 2012an bertan behera utzitako aparteko lansariaren % 25 itzultzeari buruzkoa. Eloy Villanueva Cruz jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, 2012an bertan behera utzitako aparteko ordainsariaren itzulketari buruzkoa. Santos Cerdán León jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, Lizarrako eta Tuterako laborategietako langileei buruzkoa, Iruñerako lekualdatzea egin eta gero. Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egin du (7. or.).
- Galdera, jakitekoa zer jarraibide eman zituen Nafarroako Gobernuak, C hepatitisaren duten gaixoei eragozte aldera protesta baketsu bat eta itxialdi bat egin ahal izatea. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (8. or.).
- Galdera, jakitekoa nola eta noiz betearaziko duen Gobernuak 17/2012 Foru Legean agindutakoa, ikasleak sexuen arabera bereizten dituzten ikastetxeei dagokienez. Marisa de Simón Caballero andreak egin du (8. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ordainsariak 2015eko ekitaldirako (10. or.).
- Foru parlamentariaren ordainsariak 2015eko ekitaldirako (10. or.).
- Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileen ordainsariak 2015eko ekitaldirako. (11. or.).
- Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzearen truke 2015eko ekitaldian jasoko dituzten ordainsariak (11. or.).
- Parlamentu-taldeek 2015eko ekitaldian jasoko dituzten diru-sariak (12. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea hein batean aldatzekoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea hein batean aldatzeko Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketa. Proposamen hori 2014ko urriaren 30eko 116. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

1. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Testuaren artikulua bakarrik kentzeko zuzenketa.

2. ZUZENKETA

**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea hein batean aldatzen duen Foru Lege proposameneko artikulua bakarreko 2. idatz-zatia (26. artikulua) aldatzeko zuzenketa.

«2. 26. artikulua honela idatzita geldituko da:

“26. artikulua.

Euskararen irakaskuntza botere publikoek bultzatua izanen da, eta hala behar izanez gero, haiek osoki edo partzialki finantzatua, sustapen eta promozio irizpideei jarraikiz eta eskariaren araberak.”

Zioak: ez dago inolako arrazoirik arlo horretan herritarren eskubideak eremu batetik bestera aldatzeko, hizkuntza-ofizialtasunaren araubidea

berbera baita bi eremu horietan; alegia, euskara ez da ofiziala ez batean ez bestean.

3. ZUZENKETA

**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea hein batean aldatzen duen Foru Lege proposameneko artikulua bakarrik idatz-zati berri bat gehitzeko zuzenketa.

«3. 25. artikulua.

Euskararen irakaskuntza botere publikoek bultzatua izanen da, eta hala behar izanez gero, haiek osoki edo partzialki finantzatua, sustapen eta promozio irizpideei jarraikiz eta eskariaren araberak.”

Zioak: ez dago inolako arrazoirik arlo horretan herritarren eskubideak eremu batetik bestera aldatzeko, hizkuntza-ofizialtasunaren araubidea berbera baita bi eremu horietan.

5. ZUZENKETA

**MANU AYERDI OLAIZOLA ETA
PATXI LEUZA GARCÍA**

FORU PARLAMENTARI JAUNEK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Foru Administrazioak aintzat hartuko du ekonomia sozialeko D ereduko ikastetxeek eremu ez euskaldunean egiten duten lana. Hartara, dirulaguntzen sistema bat ezarriko du, beste herri batzuetatik ikastetxe horietara joaten diren ikasleek garraio- nahiz jantoki-gastuak finantzatzeko, eskualdeko ikastetxe publikoetarako ezarritako modu berean.

Ikastetxeek hezkuntza-administrazioaren esku jarriko dituzte kontrol-dokumentuak, bideragarritasun planak eta hark egoki iriztitako bestelakoak.

Ikastola horiek beren jarduketa-eskualdeetan kultur jarduerak bultzatzen jarraitzeko konpromisoa hartzen dute”

Zioak: Eremu ez euskalduneko ikastolen ezaugarri bereziak gogoan –araudiak ikastetxe itundu izateko ezartzen dituen baldintzak betetzen dituzte–, LOMCEko 122. artikulua (eta Hezkuntzari buruzko Lege Organikoak) administrazioei aukera ematen dienez itunpeko zenbait ikastetxe pribaturi zuzkidura edo baliabide gehiago esleitzen diezazkien, eskolatzen dituzten herritarren premia berezietan, erreparatuta, eta kontuan hartuta eremu ez euskalduneko ikastolek 55 herri baino gehiagotan ikasleak hartzen dituztela –hori dela-eta, ikastetxe horiek eskualdeko ikastetxe publikoen izaera bertaria dute–, honako zuzenketa hau aurkeztu dugu, ikastetxe horientzat konponbide bat bilatze aldera. Hona argudioak:

1.- Aurrekariak

Ikastolak irakaskuntzako kooperatibak dira, 18/1986 Foru Legea onetsi aurretik hasi zirenak lan egiten foru lege horrek “eremu ez euskaldun” deitzen duen eremuan.

Eremu horretako 6 ikastolak honako urte hauetan ireki ziren:

Tafalla: Garcés de los Fayos, 1970ean

Zangoza: Rincón del Carmen, 1978an

Viana: Erentzun, 1978an

Irunberri: Arangoiti, 1980an

Fontellas: Argia, 1984an

Lodosa: Ibaialde, 2000n (Sartagudako –1985– eta Lodosako –1990– ikastolak bat egitean). Ikastetxe horiek lan publiko eta soziala egin dute Administrazioaren hezkuntza-sarea heltzen ez zen lekuetan, eta milaka ikasle hezi dituzte urte horietan guztietan. Gaur egun, 1.077 ikasle nafar ari dira hezten.

Halere, haien egoera ez zen guztiz legezta 2006ko irailera arte, orduan sartu baitziren Hezkuntza Departamentuaren ikastetxe-erregistroan, irekitzeko eta jarduteko baimena lortuz. Lehenago, Tafalla eta Zangoza soilik zeuden legeztauta.

2.- Auzi ekonomikoa.

Ikastola horiek finantzabide ezberdinak eduki dituzte beren gastu arruntetarako; halere, beti izan dituzte estutasun ekonomikoak:

1) INBERTSIOAK: Finantzaketa familien eta gainontzeko ikastolen elkartasunaren mende egon da –13 “Nafarroa Oinez” egin dira alderdi horretan–, bai eta banku-finantzetaren mende ere, oraindik ere ordaintzeke.

2) GASTU ARRUNTA: Ikastola horiek ez daukenez erabat itunduta, familiek beren gain hartu behar dute itunaren bidez estali gabeko gastuen parte bat.

Hauek dira datu ekonomiko eta finantzarioak: Egindako inbertsioak, 18 M; indarreko maileguak, 6 M.

“Ez euskaldun” deituriko eremuko ikastolek kontusail bat eduki zuten 2005/2006 ikasturtera arte Nafarroako aurrekontuetan, “Eremu ez euskalduneko ikastolentzako diru-laguntza berezia” izenekoa. Beren alegatasun-egoera gorabehera, Nafarroako Parlamentuak urtero hornitzen zuen kontusail hori, zeinaren ezaugarri nagusia baitzen diruz laguntzea jardunean zeuden ikasgelak.

Legeztautzeko, ikastetxeek legera egokitu behar izan zuten, eta horrek ahalegin ekonomiko handia egin beharra ekarri zien. 2006tik 2010era bitarteko ekitaldietan, eta martxoaren 23ko 7/2007 Foru Legea oinarri, ikastetxe horientzako diru-laguntzen epe bat ezarri zen, halako moduan non Administrazioak bere gain hartzen baitzituen itunaz gandiko gastuak, gastu horien fakturak aurkeztuz gero. Praktikan, diru-laguntza horiek 2008/2009 ikasturtera soilik eman ziren.

Familientzako kosturik handienetako bat garraioa da; izan ere, 6 ikastola horiek eskualdekoak dira, eta 55 herri baino gehiagori ematen diete zerbitzua.

Garraio-gastu orokorra handi ez dadin, ikastolek sare publikoarena bera erabil lezakete.

Eskualdeko ikastetxe izateak ikastolak behar izan dituzte jantoki-zerbitzua ere osorik eskaintzera eta ordaintzera.

Laburbilduz, helburua da arestian aipatutako gastuak eta ikastetxe publikoetakoak berdintzea, Administrazioak ez dezan inbertsio gehiagorik egin behar izan 6 ikastola horien eragin-eremuan.

Eremu horretako ikastola-mapa uneoro aztertua izanen da Hezkuntza Departamentuarekin, arazoizkotasun-irizpideei jarraituz.

3.- Auzi soziala. Eremu horretako kooperatibek Administrazioaren aintzatespena merezi dute, hainbeste urtetan ikasleak prestatzen egindako lanagatik eta beren herri eta hirietan kultur jarduerara asko egiteagatik.

Nafarroa Oinez , zeina 13 aldiz antolatu baita eremu horretan, beste tresna bat izan da erakusteko egon badagoela erkidego bat, askotarikoa bezain aberatsa kulturari dagokionez, bai eta inbertsioak finantzatzeko iturri nagusi ere.

Nafarroako Ikastolen Elkarteak beti izan da zonifikazioa gainditzearen aldekoa; ez soilik hezkuntzaren arloan, ezpada herritarrei eragiten dieten beste arlo batzuetan ere: Administrazioarekiko harremana, hizkuntza-paisaia, eta abar.

Eremu ez euskalduneko Nafarroako ikastolen sareak hamarkadak daramatza hezkuntzarako eskubide indibidualari erantzuten (gure kasuan, euskaraz), kooperatibismoaren formula erabiliz kudeaketa-modu gisa, eta ehunka familia inplikatu, bizilagunekin gizarte- eta kultura-sare dinamikoko eta interaktiboak eratzen dituzten ikastola horietako batzuetan bizilagunak dituzten Nafarroako Erdialde eta Erriberako 5 herritan. Gaur-gaurkoz, egitate objektibo eta egiaztagarria da normalizazioari, irakaskuntzari eta udal-bizitzari egindako ekarpena.

Partaidetza-eredu hori –familietan eta udaletan errotua–, bere ekipamenduak –araudi indardunaren arabera– eta bere profesionalen irakaskuntzaren arloko eskarmentua funtzionamendu-baliabide ezin egokiagoak dira, aktiboak, iraungarriak eta kalitate egiaztatukoak, gogoan hartu behar direnak beren lan etengabeak eta lan-esperientziak merezi duten errespetuarekin eta ikuspegi proaktiboarekin, zeinak ikastola horietako ikasleek egiazko prestakuntza-mailan laburbiltzen baitira; alegia, Nafarroaren etorkizun pertsonal eta kolektiboa.

6. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Azken xedapen berri bat gehitzeko zuzenketa:

“Erregelamendu bidez ezarriko da zein izan den gutxieneko ikasle-ratioa irakaskuntza-ereduetako edozeinetan eskola-unitate berri bat irekitzeko”

Zioak: Hezkuntza-erregulazioa eta -plangintza irizpide teknikoari jarraikiz egin behar dira.

7. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Azken xedapena kentzeko zuzenketa.

8. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Izenburua kentzeko zuzenketa.

9. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpena kentzeko zuzenketa.

F saila:
GALDERAK

Galdera, LOMCEren xedapen gehigarrian ezarritakoa betetzeari buruzkoa, ETAren biktimek beren historia konta dezaten Nafarroako Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxeetan.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, LOMCEren xedapen gehigarrian ezarritakoa betetzeari buruzkoa, ETAren biktimek beren historia konta dezaten Nafarroako Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxeetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuko

Hezkuntzako kontseilariak urtarrilaren 15eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Espainiako Gobernuak onetsi egin du, eta 2015eko urtarrilaren 2ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu, 1105/2014 Errege Dekretua, abenduaren 26koa, zeinaren bidez ezartzen baita Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko oinarritzko curriculum. LOMCEren xedapen gehigarri batean informazio- eta sentibilizazio-jarduerak ezartzen dira, eta honako hau ezartzen du 1. idatz-zatian: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak eta Barne Ministerioak sustatuko dute, hezkuntza-administrazioekin eta Terrorismoaren Biktimen Fundazioarekin lankidetzan, ikasleei helaraztea biktimen lekukotasuna eta gertakariei buruz haiek egindako kontakizuna".

Nafarroako Gobernuak nola beteko du LOMCEren xedapen gehigarrian xedatutakoa, ETAren biktimek beraiei gertatutakoaren kontakizuna egin dezaten Nafarroako Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxeetan?

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Galdera, funtzionarioei 2012an bertan behera utzitako aparteko lansaria- ren % 25 itzultzeari buruzkoa.

ELOY VILLANUEVA CRUZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkeztutako galdera, funtzionarioei 2012an bertan behera utzitako aparteko lansaria-
ren % 25 itzultzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Eloy Villanueva Cruz jaunak honako galdera hau egin du,

Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Espainiako Gobernuak iragan irailean iragarri zuen 2015aren hasieran itzuliko zela funtzionarioei 2012an bertan behera utzitako aparteko ordainsariaren % 25. Estatuko Aldizkari Ofizialean 2015eko urtarrilaren 2an ebazpen bateratu bat argitaratu zen, Aurrekontuen eta Administrazio Publikoen estatu idazkariena, kasuko jarraibideak ematen zituena Estatuko funtzionarioek hil honetako nominan berreskura dezaten 2012ko aparteko ordainsariaren % 25. Nafarroako Gobernuak behin baino gehiagotan iragarri du Gobernu zentralak aparteko ordainsaria itzuliz gero beste horrenbeste egingen litzatekeela Foru Komunitatean. Horrenbestez, haxe jakin nahi dut:

Nafarroako Gobernuak nola eta noiz itzuliko die funtzionarioei 2012an bertan behera utzitako aparteko ordainsariaren % 25?

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: Eloy Villanueva Cruz

Galdera, 2012an bertan behera utzitako aparteko ordainsariaren itzulketari buruzkoa.

SANTOS CERDÁN LEÓN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Santos Cerdán León jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, 2012an bertan behera utzitako aparteko ordainsariaren itzulketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Santos Cerdán jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, urtarrilaren 15eko Osoko Bilkuran Nafarroako Gobernuko lehendakariak erantzun dezan:

Zioen azalpena

Zure gobernuaren zenbait eledun baimenduk nabarmendu dute haien esanetan bizi dugun susperraldi ekonomikoa.

Gobernuak, 2012ko abenduaren 12an egindako bilkuran, beharrezkotzat jo zuen Foru Adminis-

trazioaren esparruan aplikatzea 20/2012 Errege Lege-dekretua, administrazio publiko guztiek eta sektore publikoak nazio-lurralde guztian nahitaez bete beharrekoa baita.

Halatan, lege proiektu bat aurkeztu zuen, aparteko ordainsariak 2013 eta 2015 bitarte aurreratzeko xedez, baina horrek ez du ekiditen aparteko ordainsari hori bertan behera uztea eta aldi baterako galtzea.

Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dugu parlamentu-talde honetan:

- Zure Gobernuak ba al darabil 2012an kendutako aparteko ordainsaria aurten bertan itzulitzearen aukera?

- Kontuan al duzue, gutxienez ere aukera gisa, baldin eta zailtasun ekonomikorik badago, modu mailakatuan egitea –hau da, aurten % 50a eta heldu den urtean beste % 50a–?

- Bi aukera horietako bat ere kontuan hartzen ez bada, noiz uste duzue itzuli ahal izanen duela zure Gobernuak aparteko ordainsari hori?

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: Santos Cerdán León

Galdera, Lizarrako eta Tuterako laborategietako langileei buruzkoa, Iruñerako lekualdatzea egin eta gero.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako gaurkotetasun handiko galdera, Lizarrako eta Tuterako laborategietako langileei buruzkoa, Iruñerako lekualdatzea egin eta gero.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Laz-

kanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, gaurkotetasun handiko galdera hau aurkeztu du, urtarrilaren 15eko Osoko Bilkuran Osasuneko kontseilari Vera andreak ahoz erantzun dezan:

Lizarrako eta Tuterako laborategietako langileek adierazi zigutenaren arabera, laborategiak Iruñeko laborategi bateratura eramanen dira otsailaren amaieran eta martxoaren erdialdean, hurrenez hurren.

Gauzak horrela, horri buruzko informaziorik ez daukagunez, hauxe jakin nahi dugu:

Zer gertatuko da bi laborategi horietako langile finkoekin? Aldi baterako zenbat kontratu ez dira berrituko lekualdatzea egin eta gero?

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde

Galdera, jakitekoa zer jarraibide eman zituen Nafarroako Gobernuak, C hepatitisaren duten gaixoei eragozte aldera protesta baketsu bat eta itxialdi bat egin ahal izatea.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jasok aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, jakitekoa zer jarraibide eman zituen Nafarroako Gobernuak, C hepatitisaren duten gaixoei eragozte aldera protesta baketsu bat eta itxialdi bat egin ahal izatea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduen babesean, gaurkotasan handiko honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, urtarrilaren 15eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

- Nafarroako Gobernuak zer jarraibide eman zituen, C hepatitisaren duten gaixoei eragozte aldera protesta baketsu bat eta itxialdi bat egin ahal izateko, beste erkidego batzuetan egin ahal izan den bezala?

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, jakitekoa nola eta noiz betearaziko duen Gobernuak 17/2012 Foru Legean agindutakoa, ikasleak sexuen arabera bereizten dituzten ikastetxei dagokienez.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa de Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, jakitekoa nola eta noiz betearaziko duen Gobernuak 17/2012 Foru Legean agindutakoa, ikasleak sexuen arabera bereizten dituzten ikastetxei dagokienez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasan handiko ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak heldu den urtarrilaren 15eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Parlamentua behin baino gehiagotan azaldu da, legegintzaldi honetan, ikasleak sexuen arabera bereizten dituzten ikastetxeak ituntzearen aurka.

Zehazki, urriaren 19ko 17/2012 Foru Legean ezartzen denez, ezin izanen dira itundu sexu bakarreko ikasleak bakarrik onartzen dituzten ikastetxeak, edota sexuaren arabera bereizitako taldeetan irakasten dutenak, eta epe bat ezartzen

du ikasleek bukatu ahal izan dezaten lege hori indarrean sartu zen unean eskolatuta zeuden hezkuntza-etapa.

Hezkuntza Departamentuak erabaki zuen, lege horren irakurketa interesatu bat eginez, legea argitaratu aurreko itunak mantentzea, halako moldez non 2013-2014 ikasturtearen amaiera bitartean mantenduko baitziren Haur Hezkuntza eta Baxilergorako itunak, eta 2014-2015 ikasturtea amaitu bitartean Lehen Hezkuntza, Hezkuntza Berezia,

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Maila Ertaineko eta Goi Mailako Lanbide Heziketarakoak.

Ikasleak sexuen arabera bereizten dituzten ikastetxeak 17/2012 Foru Legea ez badira egokitu edo ez badira egokitzen, beren hezkuntza-eskaintza hezkuntza mistoaren baldintzetara doitzuz, Gobernuak nola eta noiz betearaziko du foru lege horretan agindutakoa?

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ordainsariak 2015eko ekitaldirako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoe-tarako Zerbitzuko buruak Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ordainsariei buruz emandako txostena, 2014ko abenduaren 30ekoa, zeinak proposatzen baitu ordainsariak izoztea, ezertan galarazi gabe Mahaiak 2003ko abenduaren 30ean harturiko Erabakian ezarritako irizpideak, zeinen arabera Nafarroako Parlamentuko lehendakariak urteko ordainsari finko bat jasoko baitu Legebiltzarreko aurrekontuaren kargura, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan Nafarroako lehendakariarentzat urtero finkatuko den ordainsari gordinaren ehuneko 97,5en baliokidea izanen

dena, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 37. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ordainsariak ez duela inolako igoerarik izanen.

2. Lehendakariaren 2015. urteko ordainsari gordina ezartzea. Ondokoa izanen da: 67.620,70 euro.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru parlamentarien ordainsariak 2015eko ekitaldirako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 7an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoe-tarako Zerbitzuko buruak foru parlamentariak jasoko dituzten ordainsariei buruz emandako txostena, 2014ko abenduaren 30ekoa, eta foru parlamentarien ordainsariei buruzko arauetan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 15., 17. eta 37. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, foru parlamentarien ordainsariak ez dutela inolako igoerarik izanen.

2. Lanaldi osoko araubideari atxikitako Mahaiako eta Eledunen Batzarreko kide diren foru parla-

mentarien ordainsari gordina, 2015. urterako, 55.601,14 eurokoa izatea.

3. Lanaldi osoko araubideari atxikitako gainerako foru parlamentarien ordainsari gordina, 2015. urterako, 49.422,10 eurokoa izatea.

4. Lanaldi osoko araubideari atxiki gabeko Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kide diren foru parlamentarien ordainsari gordina, 2015. urterako, 41.700,82 eurokoa izatea.

5. Lanaldi osoko araubideari atxiki gabeko gainerako foru parlamentarien ordainsari gordina, 2015. urterako, 37.066,54 eurokoa izatea.

6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileen ordainsariak 2015eko ekitaldirako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoe-tarako Zerbitzuko buruak emandako Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileen ordainsariei buruzko txostena, 2014ko abenduaren 30ekoa, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 37. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileen ordainsariak ez dutela inolako igoerarik izanen.

2. Honako behin-behineko langileen ordainsari gordinak ezartzea, 2015. urterako:

– Kontseilariaren kabineteko burua: 50.633,38 euro.

– Lehendakariaren idazkaritza: 34.342,42 euro.

– Mahaiko kideen idazkaria: 27.616,26 euro.

– Parlamentu-taldean laguntzaileak: 27.616,26 euro.

3. Parlamentu-taldean laguntzaileei eta Mahaiko kideen idazkariari aplikatzea 2013ko urtarrilaren 21eko Mahaiaren Erabakiaren bidez zerbitzu aitopenari buruz onetsitako irizpideak.

4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzearen truke 2015eko ekitaldian jasoko dituzten ordainsariak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoe-tarako Zerbitzuko buruak emandako txostena, 2014ko abenduaren 30ekoa, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 15. eta 37. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, foru parlamentariak bilkuretara bertaratzearen truke jasoko dituzten ordainsariak eta bidaia ofizialengatik ordainen zenbatekoak ez dutela inolako igoerarik izanen.

2. Onestea foru parlamentariak bilkuretara bertaratzearen truke jasoko dituzten ordainsariak, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. Haien modalitateak eta zenbatekoak hauek dira:

– 136,16 euroko dieta, helbidea Iruñean edo Iruñetik 25 kilometrora bitarteko herrietan dauka-

ten foru parlamentarietzat, deituak diren parlamentu-ekitaldietarako bertaratze bakoitzeko.

– 161,00 euroko dieta, helbidea Iruñetik 25 kilometro baino gehiagora dauden herrietan daukaten foru parlamentarietzat, deituak diren parlamentu-ekitaldietarako bertaratze bakoitzeko.

– Kilometro-ordaina: 0,31 euro kilometro bakoitzeko.

3. Bidaia ofizialengatik ordainen zenbatekoa ezartzea, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin: Nafarroatik kanpora egindako bidaietan, eguneko 111,00 euro; eta atzerrira egindako bidaietan, eguneko 175,24 euro.

4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Parlamentu-taldeek 2015eko ekitaldian jasoko dituzten diru-sariak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 7an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoe-tarako Zerbitzuko buruak emandako txostena, 2014ko abenduaren 30ekoa, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 35. eta 37. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, parlamentu-taldeek jasoko dituzten diru-sariek ez dutela inolako igoerarik izanen.

2. Onestea parlamentu-taldeek jasoko dituzten diru-sariekin, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. Haien zenbatekoak hauek dira:

a. Diru-laguntza finkoa: 8.091,00 euro hilabeteko eta parlamentu-taldeko.

b. Diru-laguntza aldakorra: Kontzeptu hauen baturaren arabera zenbatekoa:

– Funtzionamendu-gastuak: 1.462,00 euro hilabeteko eta parlamentari bakoitzeko.

– Antolaketa-gastuak: 1.117,00 euro hilabeteko eta parlamentari bakoitzeko.

– Langile eta jarduera gastuak: 4.172,00 euro hilabeteko eta parlamentu-taldeko bost parlamentari bakoitzeko edo zatikiko.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera